

**JOXE AZURMENDI KATEDRAk 2025ean aurkeztutako bi GRAL sarituko ditu.
Edizio honetako sari bakoitza 500 euro gordinetara izango da.**

Pentsamendu Garaikiderako Joxe Azurmendi Katedrak, zeina Euskal Herriko Unibertsitateak eta Gipuzkoako Foru Aldundiak sustatzen duten, euskarazko ikerketa sustatu nahi du filosofian.

JAK-k bultzatu nahi dituen **ikerketa lerroak** hauek dira: **1.** 1956ko Belaunaldiaren pentsamendua; **2.** Nazioarteko eragina euskal pentsamenduan; **3.** Euskal pentsamenduaren historia eta transmisioa; **4.** Hizkuntzaren eta kulturaren teoriak; **5.** Nazioarteko eta estatuko; **6.** Bizikidetzaren eta gogoeta etikoaren (ingurumenarekiko harremana ...); **7.** Pentsamendu soziala, eraldaketa soziala eta kooperatibismoa; **8.** Gizaberearen, bizia eta gizakiaren ikuspegi berriak; **9.** Euskaraz sorturiko pentsamendu lerro berriak (genero ikuspegiak, filosofia feminista ...).

JAK-ren jardueretako bat honakoa da: "Euskaraz idatzitako Filosofiako Gradu Amaierako Lan (GRAL) onenen artean sariak ematea". Hauek dira, 2025eko edizioari begira, oinarrien **xehetasunak**:

1. 2025eko otsaileko, ekaineko edo iraileko deialdietan aurkeztu diren GRAL-en artean 500 euro gordinetara bi sari emango dira. Sariak 2025eko abenduan jakinaraziko dira (eman gabe utzi daitezke).

2. Sarituko diren GRAL-ek zuzenean edo zeharka jorratu behar dute, beti ere euskaraz, JAK-ren egitasmoan agertzen diren ikerketa lerroetako bat.

3. Sariak emateko batzorde ebaluatzailea honela osatuko da: JAK-ko Batzorde Eragileko kide bat, beraren Batzorde Kolaboratzaileko kide bat eta Filosofiako GRAL-en Batzordeko kide bat.

4. Sariak emateko puntuazioan baremo hauek hartuko dira kontuan: % 40 GRALen lortutako nota, % 40 aipatutako ikerketa lerroekiko egokitasuna, % 20 euskararen kalitatea.